

Literatura ▸ LIBURUAK

Hitz herdoilduak

MIKEL AYERBE

Asko hitz egin, ikusi eta idatzi da FTI-Antzerkiola Imaginarioak krisi sakon bat iragarri zuenetik. Horren erakusgarri da BAD'07 Bilboko IX. Antzerki eta Dantza Garaikidearen barruan sortu berri den PRE-BAD espazioan Antzerkiola Imaginarioari eskainitako monografikoa (taldearen hamar urteko ibilbideko lau antzezlan «esanguratsuenak» taularatu ziren). Eta horren erakusgarri dira Artezblaiak bi liburukitan bildu berri dituen Antzerkiola Imaginarioaren lau antzezlan dramatikoaren testuak: *8 Olivetti poetiko* / *Mundopolski, erreboltaren ziaboga* eta *Yuri Sam. Otoitza* / *Au revoir, triumfadoreak!*.

Bi liburuetan «agur usaineko» hitzurre bera sinatzen dute Antzerkiolako taldekideek. Eta irakurlearentzat derrigorrezko ohar bat: «Ez dago liburu hauetan antzezlanen (...) Aktoreak, musika, argiak, jantziak, eszenografia, atrezzoak eta publikoak kendu eta geratzen diren antzerkiaren errauts baino ez dira testuak». Antzerki irakurleentzat (irakurle, eta ez ikusle diren neurrian) antzua diru-

dien ohar honek, ordea, erabateko esanahia hartzen du Antzerkiola Imaginarioak betidanik antzerkia egiteko osagai dramatiko guztien elkarlana aldarrikatu izan duela kontuan izanda. Aldarrikatu, eta publikoari eskaini.

Izan ere, «publikoaren esku geratzen da —publikoa irakurle-demiurgo bilakatu— hitzoi bizitza emateko aukera». Irakurleak hitzetatik sortu behar ditu orain beste elementu guztien kolorea, zara, mugimendua, ahotsen tonua, isiluneak... Ziurrenik, inoiz FTI-ren antzezlanen bat ikusteko aukera izan dutenentzat lan errazagoa izango da antzezlan hauek irudikatzea. Inoiz testuaren pisuagatik (gehiegikeriez edo ateraldi absurduz despistatuta) oholztan zerbait galduta uste zuenak berriz, hemen dituzte testuok lasai eta, Yuri Samek erreztatu bezala, «astiro» irakurtzeko. Edo besterik gabe, antzezlanok «berrito bizitzeko». Era berean, testu hauen bidez lehenengoz Antzerkiolaren lanen berri izaten duena ere oharatu beharko litzateke erabilitako lengoaiagatik, pertsonaien berezitasunengatik edo zernahi txikitzen zuten testuotan asko dagoela hitzen atzean



■ **'8 Olivetti poetiko / Mundopolski, erreboltaren ziaboga' eta 'Yuri Sam. Otoitza / Au revoir, triumfadoreak!'**
Egilea: FTI-Antzerkiola Imaginarioa.
Argitaletxea: Artezblai. Urtea: 2007.

(eta aurrean, eta azpian, eta gainean). Paperean aurkezten diren hitz herdoildu hauek talde-lan dinamika baten ondorio diren heinean, nekez bildu ditzakete sorkuntza prozesuan edota emanaldi bakoitzean izandako eraldaketak.

Hitzaurrean esaten denez, bi liburutan kronologikoki aurkezten diren formatu handian taularaturiko lau antzezlanen testuak Antzerkiola Imaginarioaren ibilbidea modu egokian islatzeko gai dira. Olivettien eta Triumfadoreen lanak antzezlan korakal dira, pertsonaia guztiak etengabe nahasten dira kaosaren eta ukoaren estetika bere eginez. Freskotasan eta batekotasun handiko lana da *8 Olivetti poetiko* eta *Au revoir, Triumfadoreak!* lanaren *Garai berrietako komedia triste* azpitutuluak ezin hobeki biltzen du obraren muina. Aldiz, beste bi lanetan hiru pertsonaia aurkezten dira. *Yuri Sam*-ek otoitz unibertsal bezain original bat eskaintzen du tribu erritu baten bidez. Itxuraz xumeagoa gerta daiteke *Mundopolski, erreboltaren ziaboga*. Baina utopiaren eta desekantatuaren arteko dialektika biziak norbanakoaren gatazka (handi zein txiki) kontaezinez bildu nahi ditu bere baitan.

Argitarapen hauek ere tragikomedian baten erakusgarri baitira. Benetan pozgarria delako Antzerkiolaren lau antzezlanen testuak (behintzat) argitaratzea. Penagarria dena zera da, antzerki talde esanguratsu bat krisi sakonean murgildu behar izatea honelako lanek argia ikus dezaten. Teatrum mortis et gloriae! Gora bihotzak!

>> mayerbe@berria.info



■ **'Euskaldunon mundua hizpide'**
Egilea: Joseba Aurkenerena.
Argitaratzailea: Gero-Mensajero.
Urtea: 2007.

Euskal gazteria ikastuna sortzera bideratuta, 21 gai jorratu ditu Joseba Aurkenerenak: historia, mitologia edota kultura, besteak beste. Izan ere, Euskal Herriak aitzina egin dezan, kulturean, gizartean, historian nahiz teknologian lan egiteko prest dagoen gazteria behar du. Euskal curriculumari eginko ekarpen «apal eta xumea» ere bada liburua.



■ **'Ametsetarako hitzak'**
Egilea: Asko. Argitaratzailea: Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak.
Urtea: 2007.

Ilustratutako hamar ipuinek osatzen dute *Ametsetarako hitzak* bilduma. *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitzak*-k eskualdeko hamar idazle eta hiru marrazkilariri dei egin zien liburuaren proiektuan parte hartzeko. Idazleen artean Miren Agur Meabe, Kirmen Uribe, Karnele Jaio, Ana Urkiza, Leire Bilbao eta Yolanda Arrieta daude.



■ **'Bi kultura'**
Egilea: C. P. Snow. Itzultzailea: Inaki Iratzabalbeitia. Argitaratzailea: Elhuyar. Urtea: 2007.

C. P. Snow zientzialari eta idazleak 1959an Cambridgen *Bi kultura* hitzaldian esandakoak jasotzen ditu liburuak. Haren esanetan, Mendebaldeko kultura bi polo kontrajarrirritan bana daiteke: intelektual literarioak eta zientzialariak. Bi poloen arteko komunikazio faltaren ondorioz, lubaki gero eta sakonagoa ari da sortzen.

■ Haur eta gazte literatura


IÑAKI AGIRREZABAL >> iagirrezabal@berria.info

Urtearen errimak

Urteko hamabi hilabeteetako buruzko hiruna poema biltzen ditu liburuak. Hilabete bakoitza urtaro jakin batean izaten denez, urtaroko ezaugarri jakinek zerikusi zuzena dute poemaren gaiarekin, eta, hala, natura zuzen-zuzenean ageri da. Hainbat ikuspegitik begiratzen du egileak natura: batetik, naturaren beraren joan-etorria; bestetik, gizakiak naturan nola eragiten duen eta horrek dakartzan ondorioak. Hala lortzen du irudi eta sentipen zerranda luzea. Poema gehienek sentimendu ilunak irudikatzen dituzte, besteak beste, beldurra, lotsa eta bakardadea. Tartean, hala ere, badira poema argiagok, eta baten batek badu umore puntua. Poema guztiek ez dute euren ilustrazioa, eta batzuetan, gainera, nahasmena sortzen da irudia zein poemari dagokion. Gainera, poemarekin zerikusirik ez duten irudiak ere ageri dira batzuetan. Poema jakin batekin ageri diren irudiak, ordea, asko luzitzen dute. Marrazkiak txukunak dira, asko iradokitzen dute, eta bat egiten dute poemaren sentimenduarekin.



■ **'Sekretuak belarrira'**
Egilea: Ruben Ruiz. Ilustrazioak: Elena Odriozola. Argitaletxea: Aizkorri. Adina: 6 urtetik aurrera.



■ **'Osaba Patxiren koadernoa'**
Egilea: Imanol Azkue. Ilustratzailea: Txiki Agirre Keixeta. Argitaratzailea: Inperupe kultur elkarte.



■ **'Gose handiko beldarra'**
Egilea: Eric Carle. Itzultzailea: Koldo Izagirre. Argitaletxea: Kalandraka.

Eguneroko bizitza

Ezohikoa eta pozgarria da herriko kultur elkarte batek haurrentzako liburuak argitaratzea. Are pozgarriagoa liburuak irakurtetara eta gozagarria bada, hau da, *irakasteko* helburuetara mugatzen ez bada. Irakurtzeko ez ezik, idazteko aukera ematen du gainera, irakurle liburuaren protagonista bihurtuz. Osaba Patxi kartzelan dauka Oihanak, liburuaren protagonistak, baina kartzelan izan arren, ez du urrun sentitzen. Egunerokotasunean presente du, osabak berak oparitu dion koadernoan idazten baitzikio egunero egiten dituen gauza arruntak. Arruntak baina garrantzitsuak, egunerokoak; bizitza bera. Narratzaileak eta protagonistak bakoitzak bere ahotsetik kontatzen dizkigute gertaerak, bien artean joko polita osatuz. Istoriok laguntzen dieten marrazkiek ere protagonistak egindakoak dirudite. Liburuaren nagusi dira umorea, alaitasuna eta patxada, eta horiek guztiak kontrastea egiten du hasierako eta amaierako kartzela giroarekin. Horrek ez du, ordea, *Osaba Patxi*ren koadernoaren alaitasuna lausotzen.

Hazi ahala aldatzen

Dena aldatu egiten da. Eta izaki bizidunak hazi ahala aldatzen gara. Hala erakusten digu tximeleta bihurtzen den harraren istorio honek. Aldaketa horiek nolakoak izango diren ez jakiteak beldurra eragiten du, ordea. Hori dela eta, istorio honek aldaketa horien berri eman nahi digu, zer gertatuko den esplikatu, beldurra gal dezagun. Beharbada, nabarmen egia da hori irakasteko intentzioa; zenbakiak eta asteko egunak irakasteko asmoa ere badu liburuak. Formatua ederra da oso. Ilustrazioetan, berriz, kolore biziak, naturalak erabili ditu egileak. Hala, zuriaren erabilpena oso egokia da kontrastea egiteko. Tartean orrialde batzuk moztuta eta zulatuta daude, eta jolasarako aukera aparta ematen dute. Orrialde hauetan objektu bera aurretik zein atzetik ikusteko aukera izango da. Bizitzaren zikloa kontatzen duen liburu honek, baina, zirkulua itxia falta du amaiera biribiltzeko; hots, hasiera nondik datorren kontatzea.